

# EUSKOTRENEK URRIAREN 28AN TRENEN ZERBITZU BEREZIA ESKAINIKO DU GERNIKAKO AZKEN ASTELEHENA DELA ETA

Euskotrenek urriaren 28an Matiko – Gernika linean egun osoan zehar trenen zerbitzu berezia eskainiko du Gernikako Azken Astelehena dela eta.

Tren berezien ezaugarriak honako hauek dira:

Matiko – GERNIKA – Bermeo noranzkoa:

Matiko -GERNIKA- Bermeo tarteko zirkulazioek 30 minutuko maiztasuna izango dute egun osoaren zatirik handienean.

Goizean Matiko eta Gernika geralekuen arteko maiztasuna areagotuko da, trenak 15 minuturik behin eskainiz.

Ohiko zerbitzu zuzenak ere eskainiko dira..

Bermeo – GERNIKA – Matiko

Bermeo – GERNIKA- Matiko zirkulazioek egun osoan zehar 30 minutuko maiztasuna izango dute, baina zerbitzua eguerdian indartu egingo da.

Egun osoan zehar trenak ez dute INSTITUTUKO geralekuan geldialdirik egingo eta 9:00etatik aurrera LURGORRIko geralekua ere zerbitzutik kanpo egongo da.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete Euskotrenen langileekin zerbitzatutako geltokietan eta geralekuetan, konpainiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) web gunean, @euskotrenEJGV twitter gunean eta Euskotrenen APP ofizialean.

Igorpen data: osteguna, 2019ko urriaren 24a